

Lehengaiak

Behatokia

2024ko apirila

Basque Trade & Investmet-ek behar diren baimen guztiak ditu dokumentu hau eta bere eranskinak prestatzeko horretarako erabilitako datu-baseen jabeek emandako informazioarekin; era berean, baimena lortu du dokumentu hau eta bere eranskinak banatzeko bakar-bakarrik bere hartzaileen artean.

Dokumentu hau eta eranskinak isilpekoak dira, eta bere hartzaileei bakarrik zuzentzen zaizkie. Guztiz debekatuta dago dokumentu horiek ezein bitartekoren bidez banatu, kopiatu eta osorik edo partzialki zabaltzea, salbu eta antolakunde barruan jasotzeko baimena duten pertsoneri.

Hartzaileak hitz ematen du ez duela isilpeko informazioa kudeatuko, erabiliko, ustiatuko edo ezein pertsona edo erakunderi helaraziko ezelango arrazoirengatik klausula honek agintzen duenaren kontra, salbu eta idatziz ematen bazaio horretarako baimena.

Dokumentu honetan eta eranskinetan jasotako informazioa baimenik gabe erabiltzeak eta konfidentzialtasun-betebeharra ez betetzeak ondorio legalak izango ditu, eta Basque Trade & Investment-ek eskubidea izango du kalte-ordainak eskatzeko hartzaileak bere betebeharrak urratzeagatik gerta litezkeen kalteengatik.

Basque Trade & Investmet-ek behar diren baimen guztiak ditu dokumentu hau eta bere eranskinak prestatzeko horretarako erabilitako datu-baseen jabeek emandako informazioarekin; era berean, baimena lortu du dokumentu hau eta bere eranskinak banatzeko bakar-bakarrik bere hartzaileen artean.

Dokumentu hau eta bere eranskinak isilpekoak dira, eta bere hartzaileei bakarrik zuzentzen zaizkie. Guztiz debekatuta dago dokumentu horiek ezein bitartekoren bidez banatu, kopiatu eta osorik edo partzialki zabaltzea, salbu eta antolakunde barruan jasotzeko baimena duten pertsoneri.

Hartzaileak hitz ematen du ez duela isilpeko informazioa kudeatuko, erabiliko, ustiatuko edo ezein pertsona edo erakunderi helaraziko ezelango arrazoirengatik klausula honek agintzen duenaren kontra, salbu eta idatziz ematen bazaio horretarako baimena.

Dokumentu honetan eta bere eranskinetan jasotako informazioa baimenik gabe erabiltzeak eta konfidentzialtasun-betebeharra ez betetzeak ondorio legalak izango ditu, eta Basque Trade & Investment-ek eskubidea izango du kalte-ordainak eskatzeko hartzaileak bere betebeharrak urratzeagatik gerta litezkeen kalteengatik.



Aurkibidea

Ikuspegi orokorra.....	4
Lehengai Energetikoen Panorama.....	5
Petrolioaren prezioak	5
Gas naturalaren prezioak	5
Lehengai Industrialen Panorama	6
Aluminioa.....	6
Kobrea.....	7
Kautxu naturala.....	8
Altzairua	9
I. eranskina. Lehengai indibidualen prezioak	10



Ikuspegi orokorra

2024ko lehen hiruhilekoan zehar igo egin dira oinarrizko metalen eta kautxu naturalaren prezioak, eta jaitsi aldiz, burdinazko metalen prezioak. Izan ere, desberdintasunak egon dira eskaintzaren eta eskariaren baldintzetan. Bai oinarrizko metalen kasuan, bai kautxu naturalaren kasuan, oztopoak daude ekoizpenean (aluminioaren kasuan, energiaren errazionamenduak eta bauxitaren hornikuntza-arriskuak Txinan; kobreaken kasuan, balizko murrizketak Txinako kobre finduaren ekoizpenean; kautxu naturalaren kasuan, egoera txarra Asian, fenomeno klimatikoaren ondorioz bereziki...), eta horren ondorioz igo egin dira prezioak, baina eskariaren aurreikuspen hobeak daude munduko manufaktura-jarduerak apur bat gora egin ostean. Hala ere, burdinazko metalen kasuan, Txinatar Urte Berriko oporren ostean hasi zen beheranzko joera eta handitu egin da martxoan; izan ere, altzairuaren eskariak geldoa izaten jarraitzen du Txinako higiezin sektorean, eta horrek hornikuntza handitzea ekarri du. Datozen hilabetei begira, aluminioaren kasuan prezioak altu mantentzea espero da, baina eskariaren baldintzak oraindik ere neurritsuak direnez, ezin da hazkunde gehigarri handirik izan. Kobreaken kasuan, merkatuaren defizitaren ondorioz baliteke prezioek igotzen jarraitzea. Burdinazko metalei dagokionez, produktu batzuen kasuan beherakada gehigarriak egon daitezkeen arren, prezioak igotzea espero da. Nolanahi ere, kontinenteko Txinak iragartzen duen edozein estimuluk eragina izango du industriako metalen prezioan eta, batez ere, burdinazko metalenean. Energiaren lehengaiak dagokionez, petrolioaren prezioak igo egin dira, munduko eskariaren hazkundean aurreikuspen hobeak egon direlako, 2024an ekoizpen-kuotak murriztu egin direlako eta hornikuntza-eteten gaineko mesfidantza sortu delako, arrisku geopolitikoak direla eta. Datozen hilabeteetan petrolioaren prezioen beherakada mugatzea aurreikusten da. Aldiz, gasaren prezioek jaisten jarraitzen dute, baina hornikuntza-kateetako eteteen gaineko mesfidantzak eragina du.

Lehengaien prezioak: indize nagusientzako aurreikuspena

	2022		2023		2024		2025	
WCF (World Commodity Forecast)	254,7	% 14,7	216,2	-% 15,1	205,5	-% 4,9	206,3	% 0,4
IRM (Industrial Raw Materials)	220,2	% 4,5	193,6	-% 12,1	198,1	% 2,3	216,1	% 9,1
IRM: Metalak	249,0	% 2,7	220,5	-% 11,4	225,7	% 2,4	253,3	% 12,2
IRM: Zuntzak	154,2	% 15,6	128,5	-% 16,7	126,3	-% 1,7	123,9	-% 1,9
IRM: kautxua	211,8	-% 2,5	196,9	-% 7,0	220,2	% 11,8	228,9	% 4,0
IRM: Petrolioak	421,0	% 41,7	348,4	-% 17,2	339,9	-% 2,4	319,8	-% 5,9

Oharra: WCF (World commodity forecasts) 22 lehengaien indizea da. IRM (Industrial raw materials) The Economist Intelligence Uniten prezioen indizea da eta metalek (altzairua, aluminioa, kobrea, eztainua, nikela, beruna, zinka, burdina) % 65,1eko pisua dute, zuntzek (kotoia eta artilea) % 27,4koa eta kautxuak % 7,5koa. IRMK % 44,4ko pisua du WCF indizean.

Iturria: Basque Trade & Investmentek egina, The Economist Intelligence Unit eta Fitch Solutionsen informazioan oinarrituta

EBk eta bere bazkideek Mineralak Ziurtatzeko Elkartearen Foroa jarri dute martxan («MZEn Foroa»)


Mineralak Ziurtatzeko Elkartea 2022an sortu zen eta hamabost bazkide ditu egun: Alemania, Australia, Kanada, Estatu Batuak, Estonia, Finlandia, Frantzia, India, Italia, Japonia, Norvegia, Erresuma Batua, Koreako Errepublika, Suedia eta EB, Europako Batzordeak ordezkaturak. Horiek eta Kazahstanek, Namibiak, Ukrainak eta Uzbekistanek apirilaren 5ean iragarri zuten Mineralak Ziurtatzeko Elkartearen Foroa («MZEn Foroa») jarri zutela martxan. Foroa funtsezko lehengaien arloko lankidetzarako plataforma berri bat izango da eta Europako Batzordeak iragarritako Funtsezko Lehengaien Kluba MZEn Foroaren barruan txertatuko da. Foroan baliabide askoko herrialdeak eta baliabide horien eskari handia duten herrialdeak daude.

Bestalde, Europar Batasunak elkarte estrategiko bat sortu du Uzbekistanekin funtsezko lehengaien arloan. Egun, EBk elkarteak ditu ezarrita lehengaien arloan Kanadarekin (2021), Ukrainarekin (2021), Kazahstanekin (2022), Namibiarekin (2022), Txilerek (2023), Argentinarekin (2023), Zambiarekin (2023), Kongoko Errepublika Demokratikoarekin (2023) eta Groenlandiako lurralde autonomoarekin (2023). Halaber, berriki iragarri da Europako Batzordeak aliantza estrategikoa sina lezakeela Australiarekin lehengai kritikoen arloan.

Aluminioaren Europako Elkartek kezka adierazi du EBren eta Indiaren arteko Merkataritza Librearen Akordioari buruzko elkarrizketengatik

Aluminioaren Europako Elkartek EBko arduradun politikoei eskatu die Europako industriaren kezkek kontutan hartzeko akordio komertzialak negoziatzeko garaian, batez ere EBren eta Indiaren arteko Merkataritza Librearen itunari dagokionez, eta Europako Batzordeari eskatu diote aluminioa zerga-mugetatik ez libratzeko.

Bestalde, desadostasunak daude muga-zergak ez diren barrerei dagokionez. Elkarrizketa horiek EBk sustatutako ingurumeneko eta laneko araudi askoren testuinguruan eman dira; horietako batzuk dira besteak beste, Mugan Karbono Egokitzeko Mekanismoa eta Deforestazioaren Araudi Librea, eta EBra bideratutako Indiako nekazaritzako, altzairuzko eta aluminiozko produktuen % 8-% 10i eragin diezake.



Lehengai Energetikoen Panorama

Petrolioaren prezioak

Behatokiaren 2023ko abenduko aurreko ediziotik, pixkanaka igo dira petrolioaren prezioak, eta apirilaren hasieran, 2023ko urriko mailara iritsi ziren (Brent 90 USD/b, WTI 86 USD/b).

Prezioen igoera horren osteko faktoreek aurreikuspen handiagoak iragartzen dituzte munduko eskariaren hazkundearentzat, eta baliteke beste errekor bat gainditzea. Gainera, OPEC+ek berretsi du ekoizpen-kuotak murriztu egin direla 2024an eta murrizketa boluntario gehigarriak izango direla gutxienez bigarren seihilekora arte Arabia Saudi eta Errusiaren partetik. Gainera, Arabia Saudik salmenta-prezio ofizialak handitu dizkio maiatzean Asiari petrolio gordinaren maila guztietan, eta, aldi berean, eskaintza tenkatzen ari da. Halaber, Ukrainak Errusiako azpiegiturari egindako erasoek ere petrolio gordinaren munduko hornikuntza-eskasiaren gaineko mesfidantza sustatu dute eta prezioa mantentzen lagundu dute. Azkenik, prezioak hein batean mantendu egin diren arren Estatu Batuetan petrolio gordinaren inbentarioak handitu egin direlako, igoera hori esperotakoa baino txikiagoa izatea aurreikusten da, eta baliteke horren ondorioz Brentaren prezioak gora egitea etorkizunean.

Bestalde, Itsaso Gorriaren bidalketa-bideak eten izanak eta Estatu Batuek eta Erresuma Batuak Yemengo huthien aurkako aireko erasoak egin izanak inpaktu mugatua izan dute orain arte prezioetan. Gainera, Israelen tropa gehiago erretiratu ditu Gazako hegoaldetik eta Hamasekin su-etena hitzartzeko Egipton elkarrizketa berriak izatea espero da, prezioen gaineko tentsioak arinduz. Hala ere, Iranek Israeli egin berri dion erasoaren ostean, beharrezkoa da prezioen bilakaera gertuagotik monitorizatzea; izan ere, gatazka areagotu egiten bada, 100 upeleko dolarrera hel liteke.

Arabia Saudik 2024ko bigarren erdialdean ekoizpena asko handitzeko probabilitate handirik ez dagoenez, eta OPEPko beste kide batzuk ere murrizketa boluntarioak egin dituztenez, merkatua defizitera itzuliko da eta horrek mugatu egingo du 2024an prezioak murriztea. Nolanahi ere, 2024an, Brentaren upela batez beste 80,6 dolarretan egotea espero da, hau da, abenduan Behatokiak espero zuena baino 84,1 dolar gutxiago.

Upelaren prezioa dolarretan

	2022					2023					2024				
	Q1	Q2	Q3	Q4	Urtea	Q1	Q2	Q3	Q4	Urtea	Q1	Q2	Q3	Q4	Urtea
Brent Spot price	99,0	112,7	99,2	88,4	99,8	81,4	78,2	86,8	84,0	82,6	82,3	81,8	80,1	78,1	80,6
WTI Spot price	94,5	108,7	91,8	82,9	94,4	76,1	73,8	82,5	78,4	77,7	77,7	77,5	75,9	73,9	76,3
OPEC reference basket	97,6	112,4	101,9	87,7	99,9	80,7	78,4	87,7	85,2	83,0	82,0	81,8	80,2	78,2	80,5

Iturriak: Basque Trade & Investmentek egina, World Bank; Haver Analytics; eta The Economist Intelligence Uniten (EIU) informazioa oinarri hartuta

Gas naturalaren prezioak


Behatokiak abenduan aurreikusten zuen moduan, gas naturalaren batez besteko prezioek jaisten jarraitzea aurreikusten da 2024an, baina aldizka goren aldiak izango dira, munduko hornikuntza-kateen gaineko segurtasuna dela eta merkatuan dagoen mesfidantzaren ondorioz. Europako eta Asiako prezioak azken urteetako mailarik baxuenetan daude. Horrek eskaria apur bat igoko du ziurrenik Europako industriari eta Asiako energia-sektorean. Hala ere, prezioen gaineko eragina neurritsua izango da, beste faktore batzuegatik; besteak beste Europar energia berriagarrien erabilera handitu egin delako eta Asian ikatza etengabe erabiltzen delako. Gas natural likidotua nabarmen igotzeak, Estatu Batuetan eta Kanadan batez ere, gas naturalaren hornikuntza sustatuko du eta prezioa baxu mantenduko du Europako eta Asiako prezioen gainean, epe ertainean. Hala, TTF Herbehereetako gasaren 2024ko batez besteko prezioak 8,9 dolarrekoak izatea espero da milioi bat BTUko, Behatokiak abenduan espero zuen milioi bat BTUko 12,1 dolarrekin alderatuta.

Estatu Batuetan, gas natural likidotuaren esportatzaileen eskari gehigarriak prezioak sustatuko ditu egungo mailatik hasita. Espero da upstreameko operadoreek ekoizpenean egindako murrizketek eta gas natural likidotuaren esportatzaileen eskariaren igoerak prezioak babestea datozen hilabeteetan. Urtarrilaren 26an, Biden administrazioak iragarri zuen gas natural likidotua esportatzeko proiektu berriak onartzea geldituko zuela. Ez da espero horrek eragin esanguratsurik izatea Estatu Batuetako gasaren prezioetan epe laburrean, baina gas naturalaren ekoizpen berrian inbertitzea eragotzi dezake, eta horrek gasaren prezioen gainean goranzko prezioa eragin dezake epe luzera begira. Hala ere, apirilaren hasieran iragarri zen Etxe Zuria etenaldi horrekin amaitzeko prest egon zitekeela, Ukrainari laguntzeko.

Upelaren prezioa dolarretan milioi bat BTUko

	2022					2023					2024				
	Q1	Q2	Q3	Q4	Urtea	Q1	Q2	Q3	Q4	Urtea	Q1	Q2	Q3	Q4	Urtea
Henry hub	4,6	7,4	7,9	5,5	6,4	2,7	2,2	2,6	2,7	2,5	2,4	2,2	2,9	3,1	2,6
TTF (Europe)	32,6	31,6	60,2	36,9	40,3	16,8	11,3	10,8	13,5	13,1	8,7	8,1	9,1	9,7	8,9


Iturriak: Basque Trade & Investmentek egina, World Bank eta The Economist Intelligence Uniten (EIU) informazioa oinarri hartuta



Lehengai Industrialen Panorama

Aluminioa

- Eskaria.** Aluminioaren munduko eskaria % 2 handitzea espero da 2024an, nahiz eta Behatokiak abenduan iragarri % 2,3 txikituko zela. 2024 hasierako kontsumitzaileen jarduerak susperraldirako aurreikuspen gutxi uzten ditu epe laburrera begira, bai Europan, bai Ipar Amerikan. Hala ere, Asiako kontsumitzaileen eskaria hobetzen ari denaren zantzuak daude. Txinan, industria-jarduera ona eta garraioaren eta energiaren azpiegitura-proiektuen bilakaera positiboa hauteman da, nahiz eta eraikuntzako eskariaren ahultasuna arazo garrantzitsua den oraindik ere aluminio-sektorearentzat. Etxebizitza berrien prezioen beherakada eta higiezinaren sustatzaileen zor handia dela eta, inbertitzaileek eta kontsumitzaileek duten konfiantza ahulak adierazten du ahultasun horrek ziurrenik bere horretan jarraituko duela 2024ko lehen erdian. Hala ere, beste sektore batzuen eskariak, hala nola eguzki-energiaren instalazioetarako aluminio-estrusioek, positiboak izaten jarraitzen dute.
 - EBk Errusiako aluminioaren gainean ezar dezakeen balizko debekuak eta CBAM sartzeak EBko aluminioaren kontsumoaren dinamika aldatu dezakete.
- Hornikuntza.** Aluminioaren munduko ekoizpena % 1 handitzea aurreikusten da 2024an, Behatokiak abenduan ikusten zuen % 2,5 hori beharrean. Hein handi batean, Txinako energia-eskariak ekoizpenaren hazkundera mugatuko duelako. Alabaina, errazionamenduak eraginik izan ez duen eskualdeetan ekoizpenaren hazkundera esperotakoa baino handiagoa izan da. Hala ere, bauxitaren hornikuntzaren segurtasunak ziurgabea izaten jarraitzen du, Ginearen mende dagoelako. Mundu mailan, fundizioen ekoizpena gehiengo historikora iritea espero da. Hala ere, arrisku handiak daude pronostiko horrentzat, besteak beste; Errusiako fundizioetako ekoizpen-mailak ziurgabeak dira oraindik eta Europako fundizioetako berrabiatze-tasa geldoa da. Prezioak Europak berrabiatzeak sustatzeko bezain altuak izatea espero da, energiaren prezioek jaisten jarraituko dutela aintzat hartuz.




Iturriak: Basque Trade & Investmentek egina, WBMS; London Metal Exchange (LME); International Aluminium Institute (IAI); eta The Economist Intelligence Uniten (EIU) informazioaren arabera.

- Prezioak.** Londresko Metalen Burtzako aluminioaren batez besteko prezioa tonako 2.363 dolarrera iritea espero da 2024an. Behatokiak abenduan ezarritako prezioa baino apur bat baxuagoa den arren (2.413 dolar/tonako), prezioak igo egin dira 2024ko lehen hiruhilekoan, Txinako hornikuntzaren mugen ondorioz espero den hornikuntza-defizita dela eta, eta oinarrizko beste metal batzuen goranzko joera dela eta. Urte honetan zehar, espero da ekoizpeneko murrizketen eta existentzia baxuen ondorioz prezioen goranzko joerari eustea.

Prezioa USD/Tona


	2022	2023	2024	2025
Q1	3280	2395	2212	2750
Q2	2874	2258	2340	2650
Q3	2353	2154	2400	2750
Q4	2323	2190	2500	2850
Urtekoa	2708	2249	2363	2750

Iturriak: Basque Trade & Investmentek egina, WBMS; London Metal Exchange (LME); International Aluminium Institute (IAI); eta The Economist Intelligence Uniten (EIU) informazioaren arabera.



Kobrea

- Eskaria.** Kobrearen epe laburreko eskariaren aurreikuspenak ez dira aldatu abenduko Behatokiaren aurreikuspenei dagokionez; hortaz, hazkunde neurritsuak espero dira. Hala ere, hazkunde horien erritmoa ez da ziurra; izan ere, eskaria sendoa da, baina ahulduta dago. Alde batetik, Txinako higiezin sektoreak atzera egiten jarraitzen du hirugarren urtez jarraian eta higiezin merkatua egonkortzeko neurri berriek inpaktu mugatua izatea espero da kobrearen eskariaren hobekuntzan. Bestalde, datuek erakusten dute munduko manufaktura-jardueran gorakada bat izan dela, oinarritzko metalen eskaria dela eta. Gainera, Txinaren energia berriztagarrien gaitasuna hedatu izanak kontsumoa indartuko du. Mundu mailako ibilgailu elektrikoaren merkatuaren hedapenak are azkarrago sustatu dezake eskari hori.
- Hornikuntza.** Kobre finduaren munduko ekoizpena handitzea espero da 2024an; izan ere, meatzaritzako hainbat hedapen-proiektu ekoizten hasiko dira, nahiz eta hazkunde-aurreikuspenentzako beheranzko arriskuak areagotu. Alde batetik, baliteke Txinako fundizio nagusietako batzuek ekoizpena % 5-10 murriztea, hornikuntzen eskasia-marjinak murrizten ari delako. Marjina horiek estuak ziren dagoeneko ekoizteko gaitasunaren hedapenarekin sortu zen lehiakortasun handia dela eta. Munduko meatzetako ekoizpenean izandako eragozpen batzuek ekarri dute hornikuntza-eskasia eta hainbat adierazlek iradokitzen dute lehengaia nabarmen murriztu dela 2023ko abendutik: meatzaritzako ekoizle garrantzitsu askok ekoizpena murriztu dute erronka geologikoak direla eta edo operazioak bertan behera utzi dituzte El Niño fenomeno meteorologikoaren ondorioz. Gainera, Latinoamerikako hainbat meatzetan ezegonkortasun sozial eta politikoa dago oraindik ere.




Iturriak: Basque Trade & Investmentek egina, WBMS; London Metal Exchange (LME); eta The Economist Intelligence Uniten (EIU) informazioaren arabera.

- Prezioak.** Urtarrileko eta otsaila hasierako beherakada arinen ostean, kobrearen prezioek gora egin dute eta igotzen jarraitzen dute. Apirilaren hasieran, azken 14 hilabeteetako gehienekoa erregistratu da. Prezioen hazkunde horren atzean eskari sendoa (nahiz eta ahuldua), hainbat meatzereko ekoizteko zailtasunak eta Txinako urtzaille nagusietako batzuek ekoizpenean egingo dituzten balizko murrizketen iragarpena dago. Hortaz, aurreikustekoa da kobre finduaren munduko merkatuak 2024an defizitak erregistratzen jarraitzea. Horren ondorioz, bigarren seihilekoan kobrearen prezioek gora egitea espero da. Hazkunde horiek are handiagoak izango dira Erreserba Federalak interes-tasa murriztean. Hala ere, 2024ko kobrearen batez besteko prezioa tonako 8.880 dolarrekoa izatea espero da, hau da abenduan Behatokiak aurreikusi zuen tonako 8.953 dolarreko prezioa baino baxuagoa.

Prezioa USD/Tona


	2022	2023	2024	2025
Q1	9996	8926	8410	9650
Q2	9512	8463	8640	9800
Q3	7744	8355	9050	10000
Q4	8000	8158	9420	10250
Urtekoa	8813	8476	8880	9925

Iturriak: Basque Trade & Investmentek egina, WBMS; London Metal Exchange (LME); eta The Economist Intelligence Uniten (EIU) informazioaren arabera.



Kautxu naturala

- Eskaria.** Abenduan Behatokiak adierazi zuen 2023an kautxu naturalaren kontsumoa gelditu egin zela, baina 2024an kontsumoa indartzea espero da, % 2,8ko hazkundearekin. Ekonomia nagusietako interes-tasak pixkanaka murriztu egingo direlako eta horrek kontsumoa sustatuko duelako emango da hazkunde hori. Kautxuaren eskariaren gaineko oztopo nagusia izan da COVID-19aren ostean nabarmen jaitsi dela gomazko eskularruen ekoizpena, 2023ra arte. Ordutik aurrera, pixkanaka suspertu da produktu horien eskaria. Gainera, kautxuaren industria intentsiboko beste sektore batzuetako amaierako erabiltzaileak, esaterako, ibilgailuen fabrikaziokoak, 2024an berrezartzen hasia espero da. Horrek are gehiago sustatuko du eskaria, batez ere Txinan.
- Hornikuntza.** Oro har hazkunde-baldintzak txarrak direnez (El Niñoren patroia klimatikoak 2024ko bigarren hiru hilabetera arte irautea aurreikusten da), 2024ko eskaintza % 1,3 soilik handitzea espero da. Prezioen igoerak instalazio batzuk berriro martxan jartzen bultzada ematen duen arren, ongarraren gastua handiagoa izateaz gain, hornikuntza-aurreikuspenen arriskuak beherantz doaz. EBren Deforestazioari buruzko Araudia betetzeko kostuek eta zailtasunek pisu handia izango dute Asia hego-ekialdeko eta Afrika mendebaldeko nekazaritza txikiengan. Gainera, Asia hego-ekialdeko ekoizle handiak egoera zailetan daude. Indonesian eragin berezia du El Niñok, nekazariak balio handiagoko beste labore batzuen alde egiten ari dira, eta hostoak erortzea eragiten duten gaixotasunek nabarmen murrizten dituzte errendimenduak. Bestalde, Indiak ekoizpenak handitzen jarraitzen espero da, ipar-ekialdean ekoizpena hedatu baita. Boli Kostan eta Afrikako beste herrialde batzuetan, merkatu-kota irabaziko dute, hein handi batean, Txinaren inbertsioei eta tokiko balio-katea garatzeko neurriek esker.



Iturriak: Basque Trade & Investmentek egina, ISRG, Thai Rubber Research Institute eta The Economist Intelligence Uniten (EIU) informazioa oinarri hartuta

- Prezioak.** 2023ko abenduko Behatokiaren ediziotik, prezioak nabarmen igo dira, hornikuntzaren gaineko kezken existentzia nahiko baxuen, eskaintzarentzako aurreikuspen hobeen eta petrolioaren prezio altuagoen ondorioz. Halaber, Itsaso Gorriko etenen ondorioz igo egin dira Asiako pleiten prezioak. Era berean, kautxu naturalaren prezioek 2024an igotzen jarraitzea espero da, eskaintzak nahiko mugatua izaten jarraitzen duelako eta munduko eskaria suspertzen ari delako. Hala ere, munduko ekoizpen-jardueraren araberakoa izango da. Hala, 2024rako kautxu naturalaren batez besteko prezioa tonako 1,650 dolarrekoa izatea espero da, Behatokiak abenduan aurreikusitakoa baino altuagoa (tonako 1,508 dolar).

Prezioa USD/Tona

	2022	2023	2024	2025
Q1	1803	1376	1875	1675
Q2	1875	1375	1600	1650
Q3	1410	1306	1525	1640
Q4	1264	1465	1600	1675
Urtekoa	1588	1380	1650	1660


Prezioak eskura Thai Rubber Research Institutuen RSS3, dolar tonako (bahten bihurketa)

Iturriak: Basque Trade & Investmentek egina, ISRG, Thai Rubber Research Institute eta The Economist Intelligence Uniten (EIU) informazioa oinarri hartuta



Altzairua

- **Eskaria.** 2023ko altzairuaren munduko kontsumo-datuak abenduan Behatokiak aurreikusitakoak baino ezkorragoak dira. Indian, Errusian eta Turkian eskaria bereziki handia izan zen arren, eta Txinan hazkunde apur bat izan zen arren, horrek ez zuen munduko gainerako herrialdetako beherakada konpentsatu, batez ere Europakoa. Hala ere, munduko kontsumoaren hazkundera 2024an % 2,3 igotzea espero da, politika monetarioaren malgutzearen ondorioz. 2024an, Europako eskaria suspertzen hastea espero da eta Estatu Batuetan altzairuaren kontsumoak handitzen jarraitzea, inbertsio industrialen ondorioz. Nolanahi ere, Txinak zehaztuko ditu eskari globalaren joerak eta herrialde horretako higiezinaren sektoreak eskariaren hazkundera jarraitzen du.
- **Hornikuntza.** Altzairuaren hazkunderaren aurreikuspenek ez dute aldaketarik izan Behatokiak abenduan aurreikusi zuenetik; 2023an, % 7 inguruko beherakada izan dira European eta 2024rako ekoizpena % 2 handitzea espero da. Horrek ziklo ekonomikoaren goranzko aldi batek sustatutako eskariari erantzungo dio. Hala ere, altzairuaren ekoizpena pandemiaren aurreko mailetan mantenduko da eskualde askotan. Txinan, gobernuak bere kontrolak mantentzea espero da, hortaz, herrialdeko altzairu gordinaren ekoizpena ia egonkor mantenduko da 2024an. Espero da India izatea altzairua ekoizteko gaitasun berriaren sustatzaile nagusia, nahiz eta bere ekoizpen-gaitasuna Txinakoarengandik oso urrun dagoen oraindik ere.



Iturriak: Basque Trade & Investmentek egina, WSA eta The Economist Intelligence Uniten (EIU) informazioa oinarri hartuta

- **Prezioak.** 2023ko azken hiruhilekoan izandako prezioen gorakadaren ostean, 2024ko lehen hiruhilekoan zehar jaitsi egin dira burdinazko metalen prezioak. Txinako higiezinaren merkatuaren osasunaren gaineko ezkortasuna izan da beherakada horien arrazoiak, eskariaren desazelerazioan eta existentzien gorakadan eragin baitu. Beroan ijaztutako bobinen kasuan, munduko prezioak 2023ko amaierako eta 2024 hasierako hazkundera egokitzen ari dira. EBn, tokiko eskaintza eskasak eta inportazio-kuotak agortzeak prezioak sustatu zituen hasiera batean, baina eskariaren falta dela eta, prezioek behera egin dute eta mantendu egin dira otsailetik. Estatu Batuetan, prezioek ere gora egin zuten 2023ko laugarren hiruhilekoan, eta urteko lehen hiruhilekoan beherakada izan dira. Beherakada jarraituaren ostean, badirudi egonkortze-zantzuak daudela, gutxieneko prezioak ezarri zituzten ekoizleei eta eskaria berreskuratzeko aurreikuspenari esker. Epe laburrean oraindik ere European beherakada gehiago izatea aurreikusten da, baina prezioek gora egingo dute 2024ak aurrera egin ahala eta eskaria berreskuratu ahala. Asian, kontinenteko Txinako gobernuaren balizko estimulu-neurriek sustatuko dituzte prezioak, baina Txinako higiezinaren sektorearen ahultasunak mugatu egingo ditu. Hala ere, lehengaien eskarian eta kostuetan dagoen ziurgabetasunak arriskuak dakartza aurreikuspen horientzat.

	2023					2024					2025				
	Q1	Q2	Q3	Q4	Urtea	Q1	Q2	Q3	Q4	Urtea	Q1	Q2	Q3	Q4	Urtea
Burdinazko minerala - CFR Txina (\$ zentimo/tona metrikoko lehorra)	126	112	115	129	121	123	133	129	136	130	153	158	152	156	155
Altzairua - HRC 3mm FOB Txina (US\$/tona)	641	578	554	544	579	575	615	600	630	605	645	665	640	655	651
Altzairua - HRC Europa (US\$/tona) ¹	840	860	724	705	782	796	725	748	748	754	807	-	-	-	-
Altzairua - CRC Europa (US\$/tona) ¹	936	965	827	806	883	886	828	847	847	852	905	-	-	-	-
Altzairua - Alanbre Burdina Europa (US\$/tona) ¹	752	720	631	653	689	705	661	679	674	680	738	-	-	-	-
Altzairua - HRP Europa (US\$/tona) ¹	1037	1017	885	834	943	871	827	847	847	848	905	-	-	-	-

¹ EUR/USD = 1,09 bihurtza-faktorea. Hiruhileko eta urteko prezioak hilabeteko neurrien arabera kalkulatu dira

Iturriak: Basque Trade & Investmentek egina, WSA, MEPS, Tradingeconomics eta The Economist Intelligence Uniten (EIU) informazioa oinarri hartuta



I. eranskina. Lehengai individualen prezioak

Produktua	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028
Kautxua (US\$/tona) (New York, RSS1 spot price)	1.864	1.766	2.217	2.162	2.010	2.248	2.336	2.355	2.373	2.391
Kotoia (US zentimo/libra)	77,90	71,90	101,20	129,90	95,0	91,3	88,0	86,4	84,9	83,3
Artilea (Aus zentimo/kg)	1.232	1.195	1.191	1.188	1.184	1.195	1.195	1.195	1.195	1.195
Aluminioa (US\$/tona)	1.791	1.704	2.473	2.708	2.249	2.363	2.750	2.711	2.750	2.975
Kobrea (US zentimo/libra)	272,3	279,8	422,7	399,7	384,4	402,8	450,2	485,3	523,2	569,3
Beruna (US zentimo/libra)	90,6	82,7	100,0	97,6	96,9	98,5	99,0	104,1	109,5	115,1
Nikela (US\$/libra)	6,30	6,20	8,40	11,70	9,7	7,5	10,0	11,2	12,7	14,4
Eztainua (US\$/libra)	8,50	7,80	14,80	14,20	11,8	12,3	12,9	13,2	13,4	13,6
Zinka (US zentimo/libra)	115,6	102,6	136,3	158,1	119,9	112,2	112,4	108,2	104,1	100,3
Burdinazko minerala (\$ zentimo/tona metriko lehorra)	93,8	108,9	161,7	121,3	120,6	143,5	154,5	160,1	165,9	172,0
Altzairua - HRC FOB Txina (US\$/tona)	501,5	486,5	842,5	680,0	579,3	605,0	651,3	675,0	699,6	725,1
Urrea (US\$/ontza)	1.393	1.770	1.800	1.801	1.943	2.024	2.053	2.023	1.993	1.964
Paladioa (US\$/ontza, Londres)	1.542	2.205	2.417	2.135	1.351	945	945	945	945	945
Platinoa (US\$/ontza)	864	883	1.091	962	966,4	925	925	925	925	925
Zilarra (US zentimo/ontza)	1.622	2.054	2.517	2.179	2.340	2.253	2.153	2.078	2.005	1.935
DAP (\$/tona)	306,4	300,8	601,0	772,2	550,0	499,7	427,7	373,7	350,1	328,0
Fosfatoa arrokan (\$/tona)	88,0	76,1	123,2	266,2	323,8	217,5	126,0	94,5	92,1	89,8
Petrolio: Brent (US\$/upela)	64,0	42,3	70,4	99,8	82,6	80,6	75,8	71,1	68,1	66,7
Petrolio: OPEC erreferentziazko prezioa (US\$/upela)	64,1	41,4	69,7	99,9	83,0	80,5	75,8	71,1	68,1	66,7
Petrolio: WTI (US\$/upela)	57,0	39,3	68,0	94,4	77,7	76,3	72,2	67,8	64,9	63,5
Gas naturala (Us\$/milioi BTU, Europa)	4,8	3,2	16,1	40,3	13,1	8,9	8,0	6,9	6,6	6,6
Gas naturala (Us\$/milioi BTU, US)	2,6	2,0	3,9	6,4	2,5	2,6	2,8	3,3	3,3	3,2
Gas natural likidotua (Us\$/milioi BTU, JPN)	10,6	8,3	10,8	18,4	14,2	12,8	11,0	10,8	10,6	10,6
Ikatzua (US\$/tona, Australia)	77,9	60,8	138,1	344,9	172,8	130,0	102,5	95,0	85,5	77,0

Iturriak: Basque Trade & Investmentek egina, WBMS; London Metal Exchange (LME); International Aluminium Institute (IAI); eta The Economist Intelligence Uniten eta Fitch Solutionsen informazioaren arabera.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia



Urkixo zumarkalea, 36, 5. solairua. Bizkaia Plaza
eraikina 48011 Bilbo info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60